

Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2025/24

Dirulaguntza-deialdia guraso-elkarteendako, norgehiagokako araubidean, 2025-2026 ikasturtean

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn](#), [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

2026. urterako Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da gurasoen elkarten lana sustatzea dirulaguntza edo programa zehatzen bidez. Plan horrek berariazko dirulaguntza-lerro bat jasotzen du 5. ildo estrategikoan (Hezkuntza): guraso-elkarteek edo gurasoen elkarten federazioek eskolako ordutegitik kanpo jarduerak egin ditzaten. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetako ikasleen guraso-elkarteei eta IGEn federazioei dirulaguntzak emateko prozedura arautzea, honako hauek egin ditzaten 2025-2026ko ikasturtean: ikastetxeko gurasoei zuzendutako prestakuntza-jarduerak, ikastetxeko ikasleei zuzendutako eskola-ordutegitik kanpoko jarduerak, hezkuntza-erkidego osoari zuzendutako jolas-jarduerak eskola-ordutegian eta horretatik at, eta guraso-elkarten edo -federazioen kudeaketa- eta funtzionamendu-gastuei aurre egitea. Hori guztia deialdi honen B.3) apartatuan ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen badituzte.

2. Deialdiaren helburua:

Deialdi honen xedea da gurasoen parte-hartzea sustatzea ikastetxeetako bizitzan eta funtzionamenduan, eta horretarako ikastetxeetako ikasleei eta gurasoei zuzendutako jarduerak antolatzea, jarduera horien bitartez lana eta familia bateragarri egiteko, ikastetxeetako dinamiketan gurasoen parte-hartze aktiboa sustatzeko eta gurasoei seme-alaben eskola- eta hezkuntza-prozesuan dagokien zeregina ulertu eta beren gain hartzen laguntzeko.

3. Ekintza, proiektu, jokamolde eta jarduera diruz lagungarriak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

1.- Diruz lagundutako jardueretan kasuan kasuko ikastetxeko ikasle guztiek, edo guraso guztiek –haiei zuzenduta badaude–, hartzen ahalko dute parte, eta Guraso-elkarteko kide ez izateagatik ez zaie parte-hartzea ukatuko. Ildo horretan, diruz lagunduko da ikastetxeko gurasoei zuzendutako prestakuntza-jarduerak egitea, hezkuntza-erkidego osoari zuzendutako jolas-jarduerak edozein eskola-ordutegitan

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

egitea, eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea eta egitea ikastetxeko ikasleendako eskola-ordutegitik kanpo, "Goiztiarrendako" zerbitzuak ematea, hiri-kanpaldiak egitea oporraldietan, eta familia eta lana bateragarri egitea xede duten beste jarduera batzuk gauzatzea.

2.- Diruz lagungarria den jarduera 2025-2026ko ikasturtean egin behar da.

3.- Proiektuetako jardueren edukiek ikastetxeko ikasleen eta familien prestakuntza integrala sustatzen lagundu beharko dute, hainbat balio azpimarratuta, hala nola indarkeria fisikoaren eta genero-indarkeriaren gaitzespena, belaunaldien arteko harremanak, eta ingurumenaren, kulturaren eta gure hiriko historiaren ezagutza. Halaber, jarduera horiek gauzatzeak ikasleen artean harremanak egiteko topaguneak ahalbidetuko ditu, eta adiskidetasuna eta bizikidetzatza sustatuko ditu, bai ikasleen artean eta bai haien familiekin. 31/2022 Foru Legean ezarritakoaren arabera, jardueren diseinuak irisgarritasun unibertsala eta pertsona ororendako diseinua sustatuko ditu, desgaitasunen bat duten haurren benetako parte-hartze eraginkorra sustatze aldera.

4.- Berariaz deialdi honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

a- Ikasleei edo familiei berariaz zuzenduta ez dauden jarduerak.

b- Giza-eskubideak eta bizikidetzatza-balioak errespetatzen ez dituzten jarduerak, edo herritarrentzat iraingarriak gerta daitezkeen sinbolo zein elementuak dituztenak, haien duintasuna urratzen dutenak edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen dutenak, baita izaera politikoko jarduerak eta argitalpenak ere.

c.- Behar adinako diru-sarrera propioak dituzten eta finantzazioan defizitrik ez duten jarduerak.

d.- Iruñeko Udalaren beste deialdi batzuen bidez diruz lagundutako jarduerak, bereziki eskola-jantokia, zentzurik hertsienean (janaria eta ofizeko langileak).

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 100.000 €

Aipatu gehieneko kopuru hori honako gehieneko zenbatekoen arabera banatuko da:

1.a- 35.000 euro, eskolaz kanpoko jarduerak egiteko, eskola-ordutegitik kanpo eta ikastetxeko ikasleei zuzenduta.

2.a- 30.000 euro, gurasoei zuzendutako prestakuntza-jarduerak egiteko.

3.a- 10.000 euro, jolas-jarduerak egiteko.

4.a- 25.000 euro, guraso-elkarteen kudeaketa- eta funtzionamendu-gastuetarako.

Deialdi honen aurrekontua osatzen duten gehieneko kopuru horietakoren bat ez bada agortzen, erabili gabeko kopurua beste jarduera motetan erabiltzen ahalko da, ordenaren arabera, lehenbiziko motatik laugarrenera, betiere eskatzaileen artean gehieneko kopuru berria banatu arte, guraso-elkarrekin guztira jarduera mota bakoitzean zenbat gastatu eta horren arabera, eta C.3) apartatuan adierazitako mugarekin bat.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 50/32630/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Onuradun bakoitzari emanen zaion zenbatekoak ezin izanen du gainditu:

- Onartutako defizitaren % 85, ikastetxeko ikasleei eskola-ordutegitik kanpo zuzendutako eskolaz kanpoko jarduerak egiteko. Portzentaje hori % 90era irits liteke genero-berdintasuna azpimarratzen edo sustatzen duen jarduera bat antolatuz gero eta naturarekin kontaktuan egoteari eta ingurumena zaintzeari buruzko beste jarduera bat antolatuz gero.

- Onartutako defizitaren % 90, hizlariari eta seme-alaben hezkuntzarekin zerikusia duten gaietan prestakuntza-jarduerak egin bitartean hurrez arduratuko diren zaintzaileei ordaintzeko gastuetarako. Portzentaje hori % 75era murriztuko da kulturaren beste esparru batzuekin lotutako prestakuntza-jardueren kasuan.

- Onartutako defizitaren % 15, jolas-jarduerari dagokienez.

- Onartutako defizitaren % 85eraino, guraso-elkarteen kudeaketa- eta funtzionamendu-gastuengatik. Portzentaje hori % 90era irits liteke entitatearen zuzendaritza batzordeko kideen artean, gutxienez % 30 gizonezkoak badira eta hala jakinarazten badute.

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Defizit onartutzat joko da gastu diruz lagungarriak eta onartutako jarduera bakoitzari dagozkion diru-sarreraren arteko aldea.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: C.3 apartatuan adierazitako irizpideak aplikatuzetik ateratzen diren zenbatekoen baturak C.1 apartatuan jasotako aurrekontuak gainditzen baditu, aurreikusitako zenbatekoaren hainbanaketa egingen da jarduera-talde bakoitzaren barruan dirulaguntzaren onuradunen artean, eta aurrekontu-kontsignazioa zein ehunekotan gainditu eta ehuneko hori aplikatuko zaio, beherantz, eskatzaile bakoitzari.

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	100.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKOAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntzak eskatzen ahalko dituzte 2025-2026ko ikasturtean gurasoendako eta ikasleendako jarduerak, zeinek bere jardun-esparruan, antolatzen dituzten Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetako ikasleen guraso-elkarteek, Legearekin bat eraturik badaude eta dagokien Erregistroan izena emanda badute eskabidea aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat azken baldintza hori eskatzen ahal bazaie, bai eta baldintza horiek berak betetzen dituzten guraso-elkarteen federazioek ere.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatuzetik:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

- **IGEEK ikastetxeko familia guztiei, elkartekide izan zein ez, antolatu nahi dituzten jardueren berri emateko betebeharra, inguruabar hori nahitaezkoa ez den aldetik. Eskaera egin duten gurasoen elkarrekin familia guztiak informatzeko egindako jakinarazpenaren kopia erantsiko diote justifikazioari, VII. eranskinean ezarritakoarekin bat.**

- **Diruz lagundutako jardueretan parte hartzeko onartzea, hala eskatzen badute, jarduera zuzentzen zaien ikastetxeko ikasle guztiak, edo haien familiak, arrazoi ekonomikoengatik edo bestelakoengatik inor baztertu gabe, VII. eranskinean ezarritakoarekin bat.**

- **Elkarrekin berezko diru-funtsek, jardueretan parte hartuko dutenek ordaindutako kuoten bidez irabazitakoek, izaera sozial nabaria izanen dute, eta hala, inolaz ere ezin izanen zaio inori ukatu proiektuetan parte-hartzea ordaintzeko arazo ekonomikoak direla medio, VII. eranskinean ezarritakoarekin bat.**

- **5/2018 Foru Legean ezarritako gardentasun-betebeharrari erantzunez, legean ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitate onuradunek informazioa izanen dute honako hauei buruz: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaera; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik, eta urteko kontuak – dirulaguntzaren organo emailearen eskura egonen dira–.**

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena emanen dizkiote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntza eskatzerakoan aurrekontu-programan aurkeztutako jarduerak aldatu daitezke, edo haien ordezkariak beste batzuk egin, onuradunen beharren edo interesen arabera, betiere aldaketa horiek azpitalde bereko jardueren artean egiten badira eta deialdi honen oinarrietan ezarritakoa errespetatzen badute.

Aldaketa horiek ikasturtea amaitzean jakinaraziko dira, eta aurreko atalean ezarritako baldintza bete beharko dute onartuak izateko.

Aurrekontu-programaren aldaketak ordainketa aurreratu gisa jasotako zenbatekoei eragiten badie, justifikazioaren unean itzuli/erreklamatuko dira.

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatueta aipatutako agiriak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: HILABETE, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkariak nahikoa edukita ordezkariak horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena emanen delarik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunak agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztapenak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapidean ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egingen da. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memorian 2025-2026ko ikasturtean egingen diren jardueren programa eta aurrekontua sartuko dira, kategoriak, proposatutako jardueren deskribapena eta gastu eta diru-sarreretarako aurrekontua barne, betiere deialdi honi atxikitako IV. eranskinaren arabera.

g) Erantzukizunpeko adierazpena, 8/2021 Lege Organikoan, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babestekoan, eskatutako baldintzak betetzeari buruz (V. eranskina).

Modu telematikoa egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutakoak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kaitotutakoak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Guraso-elkarte eskatzaile bakoitzari emanen zaion zenbatekoa, betiere entitateak koadro honen B.3 eta D.1 apartatuen betekizunak betez gero, honako zerrenda honetan kontzeptuen arabera jasotzen diren ehunekoak aplikatzearen emaitza izanen da, betiere kontuan harturik koadro honen C.3 apartatuan ezarritako gehieneko zenbatekoaren mugak:

1.- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea ikastetxeko ikasleendako eskola-ordutegitik kanpo:

- Onartutako defizitaren % 85eraino, oporretan egiten diren hiri-kanpaldi, "goiztiarrendako" zerbitzu eta familia eta lana bateragarri egitea xede duten beste jarduera batzuegatik.

- Onartutako defizitaren % 85eraino, gizarte- eta ekonomia-alarretan bazter dauden ikasleen parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzen dituzten eskolaz kanpoko prestakuntza- zein jolas-jarduerengatik.

- Onartutako defizitaren % 85eraino, genero-berdintasuna eta belaunaldien arteko harremanak bultzatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerengatik.

- Onartutako defizitaren % 85eraino, naturarekin kontaktua eta ingurumena zaintzea bultzatzen duten eskolaz kanpoko jarduerengatik.

2.- Prestakuntza-jarduerak antolatzea eta kudeatzea ikastetxeko guraso guztiendako:

- Onartutako defizitaren % 95eraino, hizlarietara eta seme-alaben hezkuntzarekin edo gai ekosozialekin zerikusia duten gurasoendako prestakuntza-jarduerak egin bitartean hurrez arduratuko diren zaindazkariak ordaintzeko.

- Onartutako defizitaren % 90 arte, gizarte eta ekonomia alorretan bazter dauden familien parte-hartzea bultzatzeko asmoz kulturaren edozein esparrurekin lotutako prestakuntza-saioak ematen dituzten profesionalen ordaintzeko.

3.- Jolas-jarduerak antolatzea edo haietan laguntza ematea, hezkuntza-erkidego osoari zuzenduta, eskola-orduetan edo haietatik kanpo:

- Onartutako defizitaren % 15eraino, hezkuntza-erkidegoko kide guztien parte hartzeari zabalik dauden jolas- edo festa-jarduerak antolatzeagatik.

4.- Guraso-elkarteen edo federazioen funtzionamenduak edo, oro har, haien kudeaketak sortutako gastuak:

- Onartutako defizitaren % 85eraino, entitatearen funtzionamendu- eta kudeaketa-gastuegatik.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzen, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko zinegotzi ordezkaria / Ordezkoa: Beste zinegotzi ordezkari bat.
Batzordekideak:	Hezkuntzako zuzendaria / Ordezkoa: Alor bereko Idazkari Teknikoa.
1.	Udaleko pedagogoa / Ordezkoa: Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko beste teknikari bat.
2.	Udaleko pedagogoa / Ordezkoa: Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko beste teknikari bat.
3.	
Idazkaria:	Hezkuntzako administraria / Ordezkoa: Alor bereko beste administrari bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: SEI HILABETE

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzea: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Diruz lagungarriak diren gastuen zehaztapena:

Diruz lagungarriak diren gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz lagungarriak dira:

Honako kontzeptu hauengatik eskatzen ahalko da dirulaguntza, ezaugarrien taula honetako H) eta C.3) apartatuetan jasotakoaren arabera:

- Hiri-kanpaldietako monitoreak eta material suntsigarriak, "goiztiarrendako" zerbitzuak, familia eta lana bateragarri egitea xede duten beste jarduera batzuek, eta ikastetxeetako ikasleei zuzendutako eskola-ordutegitik kanpoko jarduerak eragindako gastuak.
- Gurasoendako hitzaldiak, ikastaroak, mintegiak, lantegiak edo bestelako prestakuntza-jarduerak egiteko hizlariak eta profesionalak ordaintzeak eragindako gastuak.

- Jaietarako jolas-elementuak (puzgarriak, etab.) alokatzeko gastuak; antzerki-taldeak, pailazoak, musika eta abar kontratatzeak.

- Hezkuntza-erkidego osoarendako aperitiboak, askariak edo ospakizunak prestatzeko gastuak.

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Telefono, energia, aseguru, federazioen kuota, material suntsikor eta abarren gastuak.

Diruz lagungarriak diren gastu bakoitzaren zenbatekoa, banan-banan hartuta, 15.000 eurotik gorakoa denean (ikasturtean zehar metagarria) – ekipamendu-ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan –, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna jasotzeko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, diruz lagungarriak diren gastuen ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan hornidura edo zerbitzu hori egiten ahal duen behar adina entitaterik ez bada. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

Diruz lagungarriak diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagunduko:

- Ondasun, ekipamendu edo material inbentariagarria eskuratzeko gastuak.
- Iruñeko Udalak helduendako proposaturiko jarduerekin bat datozen jardueren gastuak.
- Guraso-elkarteak edo federazioak, bere funtzionamendurako, langileei ordaindutako nominak eta Gizarte Segurantzak, PFEZa eta abar ordaintzeak eragindako gastuak.
- Entitateko kideei, laguntzaileei, irakasleei, etab. egindako opariak.
- Entitatearen funtzionamenduak eragindako joan-etorriek, dietek, ostatu-hartzeek, otorduek eta abarrek sortutako gastuak.
- Guraso-elkarteen federazioek Iruñeko udal-mugartetik kanpoko ikastetxeetako elkartei emandako jarduera edo zerbitzuek sortutako gastuak.
- Beste entitate batzuei egindako dohaintzen gastuak.
- Hezkuntza-erkidego osoari zuzendutako jolas-jardueren barruko otorduen gastuak, 1.500 eurotik gorakoak badira.
- Eskola-jantokiko menuen eta bazkari-zerbitzuari bakarrik atxikitako langileen gastuak.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea: 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 30era bitarte.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: Azpikontratuaren gehieneko portzentajea ezin izanen da izan dirulaguntzaren zenbatekoaren % 50 baino handiagoa.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: C.3 oinarrian adierazitakoaren arabera.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Iruñeko Udalak jarduera edo proiektu bererako ematen dituen dirulaguntzak izan ezik.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egingen da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☒ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zuzenaren artekoa: Dirulaguntza bi epeetan ordainduko zaio guraso-elkarte bakoitzari:

- Hasierako dirulaguntzaren % 50, ordainketa aurreratu gisa, dagozkion laguntza emateko ebazpena onartzen den unean.

- Gainerako % 50a, diruz lagundutako jardueren programaren justifikazioa behin aurkeztu eta baloratu ondoren.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulaketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastuak oro justifikatu behar dira (diruz lagundutako jardueraren % 100ari dagozkionak, ez bakarrik dirulaguntzaren zenbatekoari dagozkionak), aitortzailearen erantzukizunaren pean, gastuen zuzeneko egiaztagiriak aurkeztuta.

Fakturak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentu baliokideak izan beharko dute, betiere trafiko juridikoan baliodunak edo indar administratiboa dutenak, eta bide ematen dutenak dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko.

Justifikazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa".

Justifikazio-kontua agiri hauek osatuko dute:

a) Ebaluazio-memoria, egindako jardueraren gainean, non xehetasunez aitortuko baitira dirulaguntzen xede diren jarduerak, haien kostua eta sortu dituen diru-sarrerak. Honako hau izanen da, gutxienez, memoriaren edukia:

- Dirulaguntzaren xede diren jarduketetako bakoitzaren eta guztien deskribapena, eta proposatutako helburuen, egindako jardueren, parte-hartzaileen kopuruaren eta lortutako emaitzen deskribapena.

b) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, jarduera bakoitzean parte hartzen duten pertsonen ordaindutako kuotak eta entitateak berak bere bazkideen kuoten kontura egindako ekarpenak eta bestelako finantzabideak barne, koadro honetako H apartatuan jasotako kontzeptuen arabera ordenatua eta guztizkoa adierazita, justifikazio-fasean telematikoki aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasunaren erantzukizunpeko adierazpena barne. (VI. eta VII. eranskinak)

c) 23/2013 Foru Dekretuak aipatzen dituen justifikazio-agiriak, fakturak edo horien ordezkioak, ordainagiriak, eta, oro har, gastuak frogatzeko gainerako egiaztagiri baliokideak, trafiko juridikoan balioa dutenak edo indar administratiboa dutenak, betiere modu korrelatiboan ordenaturik zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

d) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako hartu-agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz. Salbuetsita dago 100 eurotik beherako gastuen ordainketa egiaztatzea, betiere justifikatu ez diren ordainketen zenbateko metatuak ez badu diruz lagundutako gastuen % 15 baino gehiago jotzen.

Kontuan harturik dirulaguntza publikoek ezin dutela, inolaz ere, irabazirik sorrarazi, haiekin batera beste dirulaguntza batzuk eskuratzeko edo jarduerak kostuaren gainetik finantzatzeko berekin ekarriko du Udalaren dirulaguntza murriztea. Diru-kantitate kobratu izana dirulaguntzak jaso dituen guraso-elkartearen edo federazioaren kontabilitate edo erregistro-liburuan jaso behar da, betiere halakorik izatera behartuta badago.

e) Entitatearen zuzendaritza-batzordearen osaera jasotzen duen akta.

Baldin eta benetako defizita edo benetako gastuak eskaera egitean aurreikusi eta dirulaguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliatutakoak baino txikiagoak badira, aintzat hartuko da inguruabar hori, eta proportzioan murriztuko da behin betiko eman behar den kopurua, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 31.7 artikularekin bat.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: 2026ko irailaren 15era bitarte

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoiak bategi ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☐ BAI ☒ EZ

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☐ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☐ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA.- Jardueren, gastu orokorren eta funtzionamendu-gastuen eskabide-eredua.

V. ERANSKINA.- Erantzukizunpeko adierazpena, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko 8/2021 Lege Organikoan eskatutako baldintzak betetzeari buruz.

VI. ERANSKINA.- Justifikazio-eredua.

VII. ERANSKINA.- Erantzukizunpeko adierazpena, fakturak, lortutako diru-sarrerak eta gainerako betebeharrak benetakoak direla dioena.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*